

BETIKOAK... BAINA GAUR

Laura Mintegi, *“Bai... baina ez”*

Elkarlanean, 1999, 174 orrialde.

Erreseina honi damaiogun titulua ez da, beharbada, oinarritzat hartu dugun liburuarena bezain iradokitzailea, baina bai uzten duela, Laura Mintegik egin bezala, interpretapen zabal baterako aukera irekia. Zertzuk dira “betikoak” delakoa? Zer egileak gaur egunean kokatu nahi digun *“Bai... baina ez”* delako hori? Zer da “dirudiena” baina “izatera edo onartzera” helzen ez dena?

Hauexek izango ditu irakurleak, besteak beste, istorioaren argumentuaz gaindi gordetzen den ezkutuko ideian oinarrituz erantzun beharrekoak.

Bigarren argitalpenaren inguruan

“Bai... baina ez” 1985eko Resurrección María Azkue saria irabazi ondoren argitaratu zen lehenengoz. Eta 1999an, hizkuntzaren erabilerari eta egiturari zenbait orrazketa egin ondoren, bigarrenez argitaratzen da Elkarlanean-en eskutik. Zer de-

la eta? Istorioak gaurkoa izaten jarraitzen duelako? Bere garaian ustez ulertu ez zirenak, gaur egun, oihartzun edo harrera hobeia izan dezaketelako?

Bere garaian, eleberri honek oso kritika zorrotzak jaso zituen: hizkuntzaren erabilera narrasa, egituraketa zurrunegia, gaiaren tratamendu hotza edo agerikoegia, etab. Nahiz eta gaurko ikuspegitik, benetako arrazoiak beharbada, beste batzuk izan zitezkeela pentsatzera makurtzen garen: Laura Mintegik garai hartan aurkezten zuen gaia onartzeko gizartea ez zegoela prest, ageriko gaiaren sakonekoak esan nahi zuena gordinegia zela 80. hamarkadako egoera sozio-politikoaren aurrean, edo eta Laura Mintegi emakumea zela eta emakume bati ez zitzaiola, garai hartan, literaturaren barruan gai edo tratamendu berri bati oratzen zitzaionik onartu nahi.

Kritikatik gaurko errealitatera

Laura Mintegik aurkezten digun eleberri honetako maitasun istorioak munstrosotzat jo izan dira, Joseba Gabilondok liburuaren hitzurrean aditzera ematen digun bezala. Baina 80. hamarkadan kritikagarriztat jo zitekeen maitasunaren tratamendu hau, 90. hamarkadaren amaieran, maitasunak euskal literaturan izan duen leku baztertua betetzera datorrela esanez laudatu da. Edo munstrokeria horren oinarrian, Euskal Herriak 80. hamarkadan argitara eman ezin zitzaizkeen hainbat eta hainbat gai jorrazteko bidea erakusten zuela, eta gaur eguneko munstroak, pertsonaiak ezezik, istorioan zehar tartekatzen zaigun kaleko ahotsa dela.

Hortxe dago gakoa! Laura Mintegik, maisutasun handiz, gai beraren inguruko bi ikuspegi erakusten dizkigula: pertsonaiena batetik eta gizartearena bestetik. Pertsonaien barruan sartzen da lehenengo kasuan, beren ikusmoldea, arrazoitzeko modua eta agitzeko era erakusteko, eta elkarrizketa ia-ia anonimoetan oinarritzen da bigarrenean, identitaterik gabeko gizartearen kontzientziaren berri eskaintzeko. Egileak irakurlea bi ikuspegi

kontrajarriren artean kokatzen du, irakurleak berak egin dezan bere interpretapen propioa. Idazleak irakurketa ezberdinetarako bidea irekiko digu, irakurleongan sortarazi beharreko iritzian eragin gabe. Ikuspegi kontrajarri hauek, bestalde, lehenaren eta orainaren sinbolotzat ere uler daitezke, gizartearen ahotsari esker, egileak, aldaketa onartzea gehiago kostatzen zaion kontzientziaren ahotsa erakusten digularik, eta pertsonaiengan, bizi errealitatea.

Mitoak apurtze bidean

Eleberri honetx, maitasuna eta sexu harremanak ulertzeko era ezberdinak agertzen dizkigu. Hasierako kapituluetan, Yolanda eta Franz-en arteko maitasun harremanaren berri ematen zaigu eta delako harreman honen ondorio gisa, Laura Mintegik Yolandaren hitzetan zera esaten digu: "maitasunaren inguruan mito bat dagoela ulertu dut". Esaldi honekin, irakurleak aurrerantzean aurki edo imajina ditzazkeen maitasunaren inguruko mito guztien apurketaz arituko dela jakinarazten digu. Laura Mintegik abisua botako dio irakurleari, kontatuko zaionerako prest jarritz.

Ondotik kontatuko dizkigun maitasun istorioak, mutur-muturrekotzat jo izan direnak, gaur egun gehiegi harritzen ez gaituztenak dira ordea: Franz, gizon itsusi eta adinean sartutako bat eta Rosa neska gaztearen artekoa batetik, Rosa eta bere aita Pacoren arteko maitasun hasieran garbia eta lohituz joango dena bestetik, eta Rosa eta bere mutilaguna den Willy-ren artekoa, azkenik.

Hiru maitasun eta sexu harreman hauetara ohituratua baldin badago irakurlegoa, gaur eguneko komunikabide ezberdinek eskaintzen dituzten programei esker, zer da gehiagotik eskaintzen diguna Laura Mintegik eleberri honetan? Normaltzat jo daitezkeen istorio ilun hauek aurkezteko modua, hain zuzen ere. Hau da, "*betikoak*" ditugun harremanen berri... "*baina gaur*".

Idea kontrajarriak aurkezteko ikuspegi berria

Idea kontrajarri asko agertzen dizkigu egileak, eleberria konposatzen duten 11 kapituluetan barrena: plazerra eta kul-pabilitate sentipena, inozentzia eta krudeltasuna, zatartasuna eta edertasuna, maitasuna eta engainua, amodioa eta grina, amodioa eta bekatua...

Egileak pertsonaiak beren barrutik aurkezten dizkigu, hitz egiten daudenak pertsonaiak beraiek balira bezala. Irakurleak, mundua eta gertakariak pertsonaien begiz ikusteko aukera izango du. Hala ere, pertsonaienez gaindiko beste ahots bat sartuko digu egileak: gizartearena, kritikarena, barkatzen ez duenarena, ongiaren eta gaizkiaren gaineko azken epaia ematen duenarena. Hau da, pertsonaiengandik eta narratzailearengandik kanpo dagoen beste ahots batena, zeinak, gizartea mugiarazten duen iritzia jakitera emango duen, eta zer egin daitekeen eta zer ez agintzera ausartuko den. Ahots honek ez du identitate propioa izatera bideratuko duen izenik, masa anonimoa da: garbitzailea, tabernaria, auzokoak, lankideak,... eleberriko pertsonaiak inguratzen dituzten eta pertsonaiekiko juzguak egitera ausartzen diren ahotsak dira.

Aipatu ikuspegi kontrajarriok, edukiz eta formaz zaindutako dikotomietan banatuta beti, pertsonaia bakoitzak eleberrian barrena hautatu duen bidea aukeratzeko eta bizitzeko eskubi-dea aldarrikatzera datoz.

Egitura tradizional batean txertatutako estiloa

Eleberriaren kanpo egitura 11 kapitulutan banatzen dela esan dugu arestian. Kapitulu bakoitzean pertsonaien eta argumentuaren inguruko aspektu bat aurkezten da. Baina barne egiturari dagokionean, egitura klasikoa jarraitzen duela esan liteke: hasierako hiru kapituluetan, sarrera gisa, Franz eta Rosa, eta Rosa eta Pacoren arteko harremanen aurkezpena egiten da. Erdiko kapituluetan, eleberriaren korapiloa izango litzate-

keena, Rosa erabakiak hartzen hasten deneko garaiaz hitz egingo zaigu: lagunekin ateratzen hasten deneko uneaz, Willy ezagutzen edo aitarekin haserretzen denekoaz... Eta azkenik, irakurlea amaierara bultzatzen duten lau kapituluetan, Willy eta Franz-en jokaerak deskribatzen zaizkigu eta portaera horien aurrean Rosak hartzen duen deliberoaren berri.

Benetako protagonistak

Eleberraren egiturari begiratu, benetako protagonistak pertsonaiak barik istorioak direla esan daiteke. Rosaren maitasun istorioa da ardatza eta horren inguruko pertsonaiak (pertsonaia nagusiak izanik ere: Paco, Franz eta Willy) agertuz eta desagertuz joango zaizkigu. Irakurketak aurrera egin ahala, eta tarteka, irakurleak pertsonaia hauekiko erreferentziak galdu egiten ditu. Paco eta Rosaren harremanaz hitzegitean Franz ahaztu egiten du, eta Franz-ekin bueltatzen denetik geroz, Paco gehiago ez da agertzen. Maitasun istorioek ordea, hor jarraituko dute, tinko.

Estilo lasai eta egunerokotasunean oinarritutakoa darabil Laura Mintegik eleberrri honetan, eta bere ezaugarririk handiena, egoerak, lekuak eta gertaerak zehazteko duen gaitasuna dela esan daiteke, deskribapen anitzetan oinarritua.

Deskribapen nahi honek, batzuetan ordea, istoriotik kanpo dauden egoerak deskribatzera eramaten du egilea: Paco eta Franz-en lantokiak, greba egoerak, etab. istorioari ezer gutxi erantsiko diotenak.

Jakinmina pizten duen eleberria

Orokorrean, irakurterraza suertatzen da eleberria. Tentsioa kapitulu guztietan barrena mantentzen du eta azkeneraino gonbidatzen du irakurlea, istorioa nola amaituko den jakitera. Arrazoi anitzengatik pizten du jakinmina: idazleak irakurleari

pertsonaiak oso ondo ezagutarazten dizkiolako, irakurleak pertsonaiek zertzu erabaki hartu behar dituzten jakin nahi duelako, irakurleak berak ere, dagoeneko, istorioaren gaineko iritzi eta jarrera jakin bat duelako, eta irakurleari, bere sentiberatasunarekin jokatu duen idazleak berak ere, pertsonaien aldeko apostua egiten duela iruditzen zaiolako.

Ana Urkiza